

Pribatuen Iragarkiak

I.E.F.P.S. ATEGORRI-TARTANGA

IRAGARKIA, teknikari laguntzailearen titulu bat galdu dela argitaratzeko (Adarra: Osasuna, espezialitatea: klinikoa). 3808

BEHARKO, ETXEBIZITZEN KOOPERATIBA SOZIJETATEA

IRAGARKIA, Beharko, Etxebizitzen Kooperatiba Sozietatea kitatzeari buruzkoa. 3808

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

Zk-1051

29/2001 DEKRETUA, otsailaren 13koa, Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko Sarea antolatzeko dena.

Urtarrilaren 17ko 12/1989 Dekretuaren bitartez, Odol eta Hemoderibatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Bankuaren antolakuntza ezarri zen.

Arau hori indarrean sartu zenetik hona, agerian gelditu da zenbaterainoko garrantzia izan duen erakunde hori sortzeak, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko behar hemoterapikoek emandako erantzuna eraginkorragoa eta zabalagoa izan baita. Odol eta hemoderibatuen behar gero eta handiagoari erantzuteko gai ez ziren egitura hemoterapikoak hobetzea eta askitasun mailarik gorenaren lortzea ziren dekretu horrekin lortu nahi ziren helburuak eta, lortu ere, lortu ziren.

Lortutako arrakastak eta eraginkortasunak antolakuntza-tresna horiek beste arlo batzuetara zabaltzea eragin dute; zehazki, altruismoz emandako bestelako giza-produktuen alorrera, izan ere, teknika medikoen aurrerapenak horiek ere hainbat arazo mediko konpontzeko baliagarri direla erakutsi baitu.

Giza-ehun espezifikoen behar eta aniztasun gero eta handiagoak (lortzeko, kontserbatzeko eta jartzeko orduan bakoitzak bere berezitasunak dituela kontuan hartuta) eta 12/1989 Dekretuan ezarritako egiturak guztiz zaharkituta gelditu izanak eragin dute dekretu horretan sortutako baliabideak eta egiturak berrantolatzeko beharra, hartuko dituzten bi alorrei egokitzeko: odo-

Anuncios Particulares

I.E.F.P.S. ATEGORRI-TARTANGA

ANUNCIO relativo al extravío de un Título de Técnico Auxiliar (Rama: Sanitaria, Especialidad: Clínica). 3808

SOCIEDAD COOPERATIVA DE VIVIENDAS BEHARKO

ANUNCIO relativo a la liquidación de la Sociedad Cooperativa de Viviendas Beharko. 3808

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Nº-1051

DECRETO 29/2001, de 13 de febrero, por el que se establece la organización de la red transfusional y de suministro de tejidos humanos del País Vasco.

Mediante Decreto 12/1989, de 17 de enero, se estableció la organización para la Red de Bancos de Sangre y Hemoderivados del País Vasco.

Durante la vigencia de esta norma ha quedado de manifiesto la importancia que el establecimiento de esta organización en el seno de la Administración sanitaria ha tenido para dar una eficaz y amplia cobertura de las necesidades hemoterápicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Los objetivos que impulsaron dicha norma, de superación de unas estructuras hemoterápicas incapaces de satisfacer las crecientes necesidades de sangre y hemoderivados así como de obtención del máximo nivel de autosuficiencia, han quedado perfectamente cumplidos.

Este éxito y eficacia constatada ha alentado la extensión de estos instrumentos organizativos con respecto a otros productos humanos procedentes de la donación altruista que el avance de las técnicas médicas ha revelado de utilidad para la resolución de no pocos problemas médicos.

Son estas cada vez mayores necesidades de tejidos humanos específicos y el cada vez mayor espectro de tales productos, con una especificidad propia en cuanto a obtención, conservación e implantación, unido a la obsolescencia de las estructuras configuradas por el Decreto 12/1989, las que justifican la reorganización de los medios y estructuras allí creadas para adaptarlas a la que

laren alorrari, batetik, eta giza-ehunenari —bere aniztasunean— bestetik.

Transfusio sarea ehunen alorrera hedatzeak aukera ematen du odolari aplikatzen zaizkion segurtasun eta kalitate maila berberak ehun horiei ere ezartzeko eta, gainera, ehunen alorrean dauden baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzeaz aparte, horien eskuragarritasuna ere biziki hobetuko da.

Laburbilduz, giza-ehunek eta odolaren deribatuek osasun publikoan garrantzi bertsua dutenez eta bien administrazio-kudeaketa eta prozesamendua ere antzekoak direnez, arrazoizkoa da zerbitzu biak batzea, azken produktuak estandarizatzeko eta dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko.

Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko Sareak barne hartuko ditu baimena lortzen duten odol-banku eta -gordailuak eta giza-ehunen bankuak eta horiek lortzeko eta jartzeko zentroak. Sarea koordinatzeaz, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa eta Transplanteak Koordinatzeko Taldea arduratuko dira. Lehenengoa dekretu honen bitartez sortzen da, bigarrena, berriz, Osasun sailburuaren 1992ko martxoaren 10eko Aginduaren bitartez eratu zen.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak lehengo Transfusioen eta Hemoderibatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroaren egitura bera izango du eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari atxikita egongo da, osasun-zerbitzuak emateko erakunde gisa.

Hortaz, transfusioekin eta giza-ehunekin lotutako baliabideak kudeatzeari begira, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa errefentziazko erakunde izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sorospen-erakunde guztientzat, bai osasun-sare publikoentzat, bai pribatukoentzat.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak giza-odolarekin eta -ehunekin diharduenez, xedapen hauetan ezarritako araubide juridikoa beteko du: odol-emate eta odol-bankuei buruzko 1945/1985 eta 1845/1993 Errege Dekretuetan eta giza-ehunen erabilera klinikoari buruzko 411/1996 Errege Dekretuan.

Dekretu honen helburua zera da, odolaren deribatuen eta giza-ehunen alorreko egituren administrazioa eta baliabideen kudeaketa hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei osasun-prestazio hobekak eman ahal izateko; batetik produktu horiek ahalik eta kalitate eta segurtasun handienaz eskuratu eta ematen direla bermatuz eta, bestetik, egin diren emanketen arabera eskuragarri dauden produktuen kudeaketa optimizatuz.

Dekretu hau Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearekin uztartzen da, izan ere, lehenengo eta behin, osasun publikoa babesten dela bermatuz.

va a ser su doble actividad, con respecto a la sangre, por una parte, y a los tejidos humanos, con toda su diversidad, por otra.

La extensión de la red transfusional al área de los tejidos permite la aplicación a los mismos de un nivel de exigencia en cuanto a seguridad y calidad semejante al implantado en la sangre, garantizando la optimización de la gestión y disponibilidad de los recursos en materia de tejidos.

En definitiva, la similar trascendencia de los tejidos humanos en la salud pública y su gestión administrativa y procesamiento, comparables a los productos derivados de la sangre, hace razonable unir ambos servicios con el fin de estandarizar los productos finales y optimizar los recursos existentes.

La nueva Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la que pasan a formar parte los bancos y depósitos de sangre y los centros de obtención, implantación y bancos de tejidos humanos cuyo funcionamiento se autorice, será coordinada por el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, que se crea por el presente Decreto y por el Equipo de Coordinación de Trasplantes, creado por Orden de 10 de marzo de 1992, del Consejero de Sanidad.

El nuevo Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, hereda la estructura del antiguo Centro Vasco de Transfusión y Hemoderivados, adscrito al Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud con el carácter de organización de servicios sanitarios.

El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos se constituye, por tanto, en una organización de referencia, a los efectos de gestión de recursos transfusionales y de tejidos humanos, para todas las entidades asistenciales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tanto de la red sanitaria pública, como de la privada.

Por razón de la actividad desplegada en relación con la sangre humana y los tejidos de origen humano, el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos habrá de atenerse al régimen jurídico establecido en los Reales Decretos 1945/1985 y 1845/1993, sobre hemodonación y bancos de sangre, y en el Real Decreto 411/1996, sobre utilización clínica de tejidos humanos.

Este Decreto persigue, en última instancia, una mejora de las estructuras administrativas y de gestión de los recursos derivados de la Sangre y de los Tejidos Humanos, con el último objetivo de la mejora de la calidad de las prestaciones sanitarias a los ciudadanos del País Vasco, garantizando la disponibilidad y suministro de tales productos en condiciones idóneas de calidad y seguridad sanitaria y optimizando, en definitiva, la gestión de los que estuvieren disponibles en función de las donaciones existentes.

Entronca este Decreto con la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria, al actuar, en primera instancia, en garantía de la tutela general de la salud

tzen du (Legearen 3. artikulua) eta babes hori sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema osatzen duten egiturak arautzen ditu. Bestalde, lehen aipatutako Estatuko arauen osagarritzko garapena egiteko eskumena ere erabiltzen da, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legearen 2.2 artikulua baren babesean, horretarako nahikoa eskumen baitu Autonomia Estatutuaren arabera.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak dioenari jarraituz, Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko otsailaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
TRANSFUSIOETARAKO ETA GIZA EHUNEN
HORNIKETARAKO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO SAREA

1. *artikulua*.— Helburua.

1.— Dekretu honen bitartez, Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Sarea antolatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.— Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko Sarearen helburua hauxe izango da: giza-odolaren deribatuen eta giza-ehunen behar sanitarioei erantzutea, bai osasun-sare publikoan, bai pribatuan, eta horien horniketa bermatzea, dauden izakinen arabera.

2. *artikulua*.— Antolaketa.

Honako hauek osatuko dute Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Sarea:

a) Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak.

b) Odol-banku eta -gordailuek.

c) Giza-ehunen bankuek eta horiek eskuratzeko eta jartzeko zentroek.

d) Transplanteak Koordinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Taldeak.

3. *artikulua*.— Koordinazioa.

1.— Odol-banku eta -gordailuek eta giza ehunen bankuek eta horiek eskuratzeko eta jartzeko zentroek, baimena jasotzen duten unean, Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko Sarean sartuko dira, dekretu honetan zehazten diren ondorioetarako.

2.— Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak eta Transplanteak Koordinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Taldeak koordinatuko dute sarearen funtzionamendua, nork bere alorrean. Hortaz, sarea osatzen duten unitate guztien ar-

pública, proclamada en su artículo 3, promoviendo su protección, mediante la regulación de estructuras que configuran el sistema sanitario de Euskadi. Asimismo, se ejerce la facultad de desarrollo complementario de las normativas estatales antes citadas, en uso de la facultad prevista en el artículo 2.2 de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, habida cuenta su nivel competencial establecido en el Estatuto de Autonomía.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Sanidad, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión de 13 de febrero de 2001,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
LA RED TRANSFUSIONAL Y DE SUMINISTRO
DE TEJIDOS HUMANOS

Artículo 1.— Objeto y finalidad.

1.— Mediante el presente Decreto se organiza en la Comunidad Autónoma del País Vasco la Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos.

2.— La Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos tendrá por finalidad atender las necesidades sanitarias de productos derivados de sangre humana y de tejidos humanos, tanto en el marco de la red sanitaria pública como de la sanidad privada, garantizando su suministro en función de las disponibilidades existentes.

Artículo 2.— Organización.

Forman la Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos:

a) El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

b) Los bancos y depósitos de sangre.

c) Los centros de obtención, implantación y bancos de tejidos humanos.

d) El Equipo de Coordinación de Trasplantes del País Vasco.

Artículo 3.— Coordinación.

1.— Los bancos y depósitos de sangre y los centros de obtención, implantación y bancos de tejidos humanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco quedarán integrados, desde su autorización, en la Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos del País Vasco, a los fines que se determinan en el presente Decreto.

2.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos y el Equipo de Coordinación de Trasplantes del País Vasco coordinarán, en sus respectivos ámbitos, el funcionamiento de la Red. A tal efecto, sus objetivos y actuaciones se definirán en un Plan que será elaborado

tean, plan bat egingo dute, bi erakunde horien helburuak eta jarduerak zehazteko. Plan hori Osasun Sailak onartu beharko du.

II. KAPITULUA TRANSFUSIOEN ETA GIZA EHUNEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZENTROA

4. *artikulua*.— Atxikipena eta izaera.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoari atxikita egongo da. Izaera eta zuzendaritza-egitura, berriz, osasun zerbitzuak ematen dituzten erakundeena izango ditu.

5. *artikulua*.— Funtzioak

1.— Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak zeregin hauek beteko ditu besteak beste: sustapen-lanak burutzea, odola ateratzea, azterketa analitikoa egitea, zatikapen primarioa egitea, zatikapen plasmatikoa antolatzea, giza-odolaren deribatutak banatzea eta transfusio-medikuntzaren inguruko prestakuntza eta ikerketak sustatzea. Halaber, giza-ehunen prozesamendu analitikoa, kriokontserbatze-prozesua eta banaketa ere egingo ditu.

2.— Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak zeregin hauek burutuko ditu berariaz:

a) Odol-ematea sustatzea eta odol-emaileen elkarteekin lankidetzan aritzea.

b) Erkidegoak dituen odol, hemoderibatu eta giza-ehunen beharrak eta segurtasun-marjinak zehaztea eta estualdi eta larrialdietan jarduteko neurriak finkatzea.

c) Kalitatezko programa teknikoak egitea.

d) Transfusioen eta giza-ehunen bankuen alorreko medikuntzaren teknika-, zientzia- eta irakaskuntzamailek zehaztea.

e) Odolzaintza-programak garatzea eta horien antzeko sistemak antolatzea giza-ehunetarako.

3.— Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak, giza-odolarekin zerikusia duten jardueretan, Odol-emate eta odol-bankuei buruzko urriaren 9ko 1945/1985 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen diren zereginak beteko ditu, salbuespenik gabe.

4.— Bere zereginetan diharduela, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak transfusio-medikuntzarekin eta giza-ehunen bankuekin zerikusia duten erakunde, entitate eta elkartei partaidetza eta aholkuak eskatu eta kontsultak egin diezazkieke.

6. *artikulua*.— Zuzendaritza.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak zuzendari kudeatzaile bat izango

con la participación de todas las unidades integrantes en la Red y que será objeto de aprobación por el Departamento de Sanidad.

CAPÍTULO II EL CENTRO VASCO DE TRANSFUSIÓN Y TEJIDOS HUMANOS

Artículo 4.— Adscripción y carácter.

El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos estará adscrito al Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud y tendrá la consideración y estructura directiva propia de una organización de servicios sanitarios.

Artículo 5.— Funciones

1.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos desarrollará las actividades de promoción, extracción, estudio analítico, fraccionamiento primario, organización del fraccionamiento plasmático, distribución de los productos derivados de la sangre humana, así como de la formación e investigación en medicina transfusional. Asimismo, desarrollará las actividades de procesamiento analítico y de criopreservación y distribución de tejidos humanos.

2.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos desarrollará específicamente las siguientes funciones:

a) Promoción de la donación de sangre y colaboración con las asociaciones de donantes.

b) Determinación de las necesidades comunitarias de sangre y hemoderivados, y de tejidos humanos, márgenes de seguridad, y medidas de actuación ante situaciones críticas y de emergencia.

c) Elaboración de programas técnicos de calidad.

d) Definición de los niveles técnicos, científicos y docentes de la medicina en las áreas transfusional y bancos de tejidos humanos.

e) Desarrollo de los programas de hemovigilancia, y organización de sistemas similares para los tejidos humanos.

3.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, en su actividad relacionada con la sangre humana, desarrollará, en todo caso, las funciones previstas en el artículo 10.2 del Real Decreto 1945/1985, de 9 de octubre, sobre hemodonación y bancos de sangre.

4.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos en el ejercicio de su actividad podrá requerir la participación, el asesoramiento y la consulta de los organismos, entidades y asociaciones relacionadas con la medicina transfusional y los bancos de tejidos humanos.

Artículo 6.— Dirección.

Al frente del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos existirá un Director Gerente que ejercerá las

du. Pertsona horrek karguari dagozkion zereginak burutuko ditu, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren estatutuen arabera.

7. artikulua.– Zuzendaritza Kontseilua.

Zuzendaritza Kontseilu bat ere egongo da, zuzendari kudeatzaileari laguntzeko. Kontseilu horretan transplanteetarako koordinatzaile orokorra egongo da ezinbestez. Gainerako kideak, berriz, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren estatutuetan ezarritakoaren arabera izendatuko dira.

III. KAPITULUA

ODOL BANKU ETA GORDAILUAK ETA GIZA EHUNAK ESKURATZEKO ETA JARTZEKO ZENTROAK ETA GIZA EHUNEN BANKUAK

8. artikulua.– Odol-bankuak eta -gordailuak.

Odol-bankuek eta ospitaleetako odol-gordailuek zeregin hauek beteko dituzte Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Sarean:

a) Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroarekin batera lan egitea odol-emate altruista eta borondatezkoa sustatzeko orduan.

b) Dekretu honetako 3.2 artikuluan aipatzen den Planean zehazten diren helburuak betetzea, beti ere, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak onartutako arau teknikoak betez.

c) Transfusioen kalitatea zaintzeko erkidegoko sarean parte hartzea.

d) Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroarekin batera lan egitea irakaskuntza- eta ikerketa-programetan.

9. artikulua.– Giza-ehunak eskuratzeko eta jartzeko zentroak eta giza-ehunen bankuak.

Giza-ehunak eskuratzeko eta jartzeko zentroek eta giza-ehunen bankuek zeregin hauek beteko dituzte Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Sarean:

a) Transplanteak Koordinatzeko Taldearekin batera lan egitea giza-ehunen ematea sustatzeko orduan.

b) Giza-ehunak eskuratu, kontserbatu eta ezartzeko orduan kalitatea zaintzeko programan parte hartzea.

c) Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroarekin batera lan egitea egiten diren irakaskuntza- eta ikerketa-programetan.

d) Dekretu honetako 3.2 artikuluan aipatzen den planean zentro-mota bakoitzerako zehazten diren helburuak betetzea.

funciones propias de tal cargo, de conformidad con lo establecido en los estatutos sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Artículo 7.– El Consejo de Dirección.

El Director Gerente estará asistido por un Consejo de Dirección que estará integrado, en todo caso, por el Coordinador General de Trasplante, sin perjuicio del resto de miembros que lo deban ser en virtud de lo establecido en los estatutos sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

CAPÍTULO III

BANCOS Y DEPÓSITOS DE SANGRE Y CENTROS DE OBTENCIÓN, IMPLANTACIÓN Y BANCOS DE TEJIDOS HUMANOS

Artículo 8.– Bancos y Depósitos de Sangre.

Los bancos de sangre y los depósitos hospitalarios de sangre, realizarán, en el marco de la Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos, las siguientes funciones específicas:

a) Colaborar con el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos en la promoción de la donación altruista y voluntaria de sangre.

b) Cumplir los objetivos específicos que se señalen en el Plan a que se refiere el artículo 3.2 del presente Decreto, con sujeción a las normas técnicas aprobadas por el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

c) Participar en la red de vigilancia comunitaria de la calidad transfusional.

d) Colaborar con el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos en los programas de docencia e investigación.

Artículo 9.– Centros de obtención, implantación y bancos de tejidos humanos.

Los centros de obtención, implantación y bancos de tejidos humanos realizarán, en el marco de la Red Transfusional y de Suministro de Tejidos Humanos, las siguientes funciones específicas:

a) Colaborar con el Equipo de Coordinación de Trasplantes en la promoción de la donación de tejidos humanos.

b) Participar en el programa de calidad de obtención, conservación e implantación de tejidos humanos.

c) Colaborar con el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos en los programas de docencia e investigación que se establezcan.

d) Cumplir los objetivos específicos que se señalen en el Plan a que se refiere el artículo 3.2 del presente Decreto, para cada tipología de centro.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.— Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren II. eranskinean, Transfusio eta Hemoderibatuen Euskal Zentroa jartzen duen lekuetan, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa jarriko da.

Bigarrena.— Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroak beharrezko baimenak lortu edo berrituko ditu, odol-emate eta odol-bankuei buruzko urriaren 9ko 1945/1985 Errege Dekretuan eta giza-ehunen erabilera klinikoari buruzko martxoaren 1eko 411/1996 Errege Dekretuan edo horien ordezkari dadin araudian xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.— Dekretu honetan aipatzen den Transplanteak Koordinatzeko Taldeari dagokionez, Transplanteak Koordinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Taldea antolatzeke Osasun sailburuak 1992ko martxoaren 10ean emandako Aginduan xedatutakoa beteiko da.

Laugarrena.— Dekretu honetan arautzen den osasun-jarduera behar bezala egin dadin eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-baliabide guztiek era koordinatuan funtziona dezaten, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoak hitzarmenak egin ditzake osasun-zentro eta ospitale pribatuekin edota osasun-zerbitzuak ematen dituzten bestelako entitate eta erakundeekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarririk gabe uzten da Odol eta Hemoderibatuen Bankuen Sarea antolatzen duen urtarrilaren 17ko 12/1989 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Osasun sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu hau garatzeko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko otsailaren 13an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL MARÍA INCLÁN IRÍBAR

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— La referencia al Centro Vasco de Transfusiones y Hemoderivados, contenida en el anexo II del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, queda sustituida por la de Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Segunda.— El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos obtendrá y renovará las autorizaciones que le sean exigibles, de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 1945/1985, de 9 de octubre, por el que se regula la hemodonación y los bancos de sangre y el Real Decreto 411/1996, de 1 de marzo, por el que se regula las actividades relativas a la utilización clínica de tejidos humanos, o normativa que los sustituya.

Tercera.— En relación con el Equipo de Coordinación de Trasplantes a que se refiere el presente Decreto, será de aplicación lo dispuesto en la Orden de 10 de marzo de 1992, del Consejero de Sanidad, por la que se organiza el Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuarta.— A los efectos de asegurar el correcto desarrollo de la actividad sanitaria a que se refiere el presente Decreto, y de conseguir el funcionamiento coordinado de la totalidad de los recursos sanitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud podrá establecer convenios con los centros sanitarios y hospitalarios privados, así como con otro tipo de entidades y organizaciones de prestación de servicios sanitarios.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 12/1989, de 17 de enero, por el que se establece la organización para la Red de Bancos de Sangre y Hemoderivados del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se autoriza al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL MARÍA INCLÁN IRÍBAR.